

Behobiatik Donostiara korrika bizian

Joan den igandean 30.000tik gora korrikalari bildu ziren Behobiatik Donostiara doan errepidean. Euren artean 35 ermuar eta mallabitar. Eguraldia lagun, lasterketaren 20 kilometroak txalo artean egin zituzten. Lehia eta festa giroa ez zen falta izan. Bai esfortzua egin zutenek, bai animatzen aritu zirenek, bere guztia eman zuten gero eta ezagunagoa den zita honetan.

Behobiako kaleetan ez zegoen beste inorentzako tokirik azaroaren 9ko goizean. Katalunia, Frantzia, Madril, Asturias eta beste hainbat tokitatik etorritako jendea batu zen Behobia-Donostia lasterketaren 50. edizioan. Batzuk lehiatu eta marka ona egiteko asmoarekin, beste batzuk 20 kilometroak betetzeko desirarekin, giro paregabeaz gozatu zuten denek.

Donostiko Boulevardeko helmugara iritsi zen lehen

ermuarra Alberto Martin izan zen, 1:19:38 bere denbora eta 925. postuan amaitu zuen lasterketa. “Gehien gozatu dudana aldia izan da. Denbora onena lortu eta gutxien sufritu dudana”, dio. Albertok Donostiako maratonia prestatzeko hartu zuen lasterketa, baina bere esanetan, jendearen animoek aurrera eramaten dute korrikalaria eta “topera zoaz azkenean”.

Laugarren aldia da Behobia-Donostian parte hartzen

Juanmi Bravok lehengusuekin egin zuen lasterketa



duena. “Giroa izugarria da. 30.00 korrikalari, afizioa edonon... sentimendu ugari batzen dira”. Eguraldi ona ere azpimarratzen du Albertok, “astroak elkartu ziren”.

Helmugan, Asier Arellano izan zen Mallabiko onena. Ez zen lehen Behobia-Donostia berarentzat. “Lau bider egin dut lasterketa eta aurten lortu dut denborarik

onena”. Aurreikuspenak beste zituela aipatzen du: “Baina aitortu beharra daukat hobeto egitea espero nuela”. Hala ere, “nahiz eta une txarrak ere pasatu”, lasterketa egunean gustura ibili zen.

Korrika egiten gehiago edo gutxiago ibiltzea albo batera utzita, Behobia-Donostian parte hartzen dutenek bide osoan zehar bizi den giroa goraipatzen dute. Lasterketaren irabazleak helmugan esan bezala, “Behobia-Donostia publikoari esker da orain den lasterketa”. Juanmi Bravo ermuarrarentzat ere, “kirol-esperientzia ezin politagoa da”.

Juanmi ez da lasterketa honetara lehiatzera joaten. “Ezarritako erritmoa inguruan dugun guztia ikusteak ematen digun gozamenara egokitzen dugu”. Hala ere, bidea egin behar da, “ez dezala inork pentsa hoge kilometro korritzea ahuntzaren gaurdiko estula denik!”.

Ekhi Belar

925	Alberto Martin	Ermua	1:19:38
1388	Berex Ortiz	Ermua	1:22:00
2161	Ander Carmona	Ermua	1:24:27
2177	Oscar Medina	Ermua	1:24:28
2674	Fco. Javier Rabadan	Ermua	1:25:55
2898	Asier Arellano	Mallabia	1:26:32
4587	Andoni Aldape	Mallabia	1:29:29
4587	Javier Muñoz	Ermua	1:29:46
4979	Luis Perez	Ermua	1:30:31
5830	Ander Garitagoitia	Mallabia	1:32:01
5932	Jon Unanue	Ermua	1:32:11
6271	Imanol Zubia	Ermua	1:32:43
6669	Xabat Uzuriaga	Mallabia	1:33:27
7634	Raquel Medina	Ermua	1:34:57
7674	Roberto Gonzalez	Ermua	1:35:00
7992	Unai Uzuriaga	Mallabia	1:35:29
9510	Juan Jose Saez	Ermua	1:37:40
9983	Juan Carlos Gomez	Ermua	1:38:20
9984	Miguel Angel Montañes	Ermua	1:38:21
9996	Oier Guede	Ermua	1:38:22
10819	Ibai Zubiria	Mallabia	1:39:26
10871	Enrique Aranda	Ermua	1:39:31
12019	Jesus Pardo	Ermua	1:41:02
15315	Asier Guede	Ermua	1:45:50
15605	Joaquin Arroyo	Ermua	1:46:18
16006	Jose Luis Dacosta	Mallabia	1:46:56
16401	Jon Gorritxategi	Mallabia	1:47:31
16406	Ander Yarra	Mallabia	1:47:32
16798	Alexander Conde	Ermua	1:48:06
17699	Jaime Oneca	Ermua	1:49:32
17705	Jose Antonio Fernandez	Ermua	1:49:33
19276	Ana Martinez	Ermua	1:52:26
21449	Asier Castro	Ermua	1:56:50
21715	Juanmi Bravo	Ermua	1:57:20
22975	Nerea Azpiazu	Mallabia	2:00:30



Alberto Martin Gaintxurizketan gora

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08